


# Nafarroa

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994eko urtarrilak 21 / IV. urtea / 111. zenbakia

## Bertizen turismoa, zer turismo?

Bi hormetara

JOSETXO AZKONA



### Barne-begia

**E**z dakit, zuk, irakurleak, txikitan noizbait jolastuko zenuen ala ez. Baiezkoan nago, hala ere. Kontua da ibili artean begiak itxi behar zirela, xede bakar bat lortu asmoz: ahalik eta pauso gehien ematea begiak bat ere zabaldu gabe, alegia. Jolasari ekin aurretik, bestalde, lerro zuzen imaginario bat marraztu behar zen ibilbidean. Ondorean, eta beti ere, begiak zeharo lausoturik edukita, itsu-itsuka ibiltzen hasi behar zen aurrekuntza, lehenago esan bezala, ahal zen tarterik luzeena ibiltzearen. Taiuzkoa zen, bidenabar. alboetara gehiegi ez makurtzea. Ahatik, luze-laburrak ongi neurtzea eta baita, oreka zentzu on bat izatea ere ezinbesteko nolakotasunak hartzen ziren, baldin eta txitean-pitean kaleko farola edo beste zernahai koskarekin tupust egin eta kopetako ederra jasan nahi ez bazen. Ibiltzen zen bitartean bestetik, gogoratzen dut, zorrozki zenbatu beharra zedela emaniko pausoak. Aise ematekoak ziren lehenak, ez ordea, esate batera, bost edo seigarrenetik gorakoak. Orduantxe hasten baitzen komeria: behaztopoari beldurra, huts nahigabetsuaren sentsazioa eta non zinen kokaturik ere ez jakitearen izua. Beldurrak beldur, garbi zegoen zenbat eta oinkada gehiago eman, orduan eta zirrara handiago sentitzen zela barrenean. Hauxe izango zen, hain zuzen, jolas inozo haren grazia, hots, nahita zentzumen bat ukaturik, ibilian ibiliz zer gerta zitekeen somatzea. Ezin soilagoa, eta alde berean, egiten zaila: ez dute uste inoiz hamabost pauso egitera ere ailegatuko nintzenik.


Aitzitik ere, horietarik milaka eman behar izan dituzten Serafin, Jabier eta Alfredok, hirurak itsu-itsuka, baina bai Mari Abrego eta beste espediziokideen zintzarrei adi-adi egonda, joan den astean arrakastaz menperaturiko Aconcagua menditzarreko igoeran. Ezin pentsatuzkoa da nola irudika dezakeen itsu batek 'Mandoen Plaza' (4.200m.) eta Aconcagua gailurra (6.959) lotzen dituen lerro imaginarioa, nola sentitzen duen lurra bere oinpean, eta are gehiago, agian, nolakoa edo zenbateraionokoa den bere beldurra hurbileko gidariarekin elkarturik daukan soka galdu eta huts amaigabeetatik saihesteari. Gauza horiek egin dute gaina: argikuleek eta ikusmenek gabetuek. «Ezin da hitzez adierazi, poz izugarria sentituta dut» esan du Zubirikoak. Txikitango jolas hartan ez bezala, inork ez baitu itsuarena egin Aconcaguan.



Baztan-Bidasoa ingurua bultzatzea da helburua, eta irudi berdea landu nahi izan da horretarako.

Bertizko Partzuergo Turistikoak urtea bete berri du. Baztan, Malerreka eta Bortzirietako udalek sortua, asmo hutsa zena erakunde handi eta itxuroso bihurtu da, inguru osoa berpizteko asmoarekin. Lehen urteko emaitzak, halaber, oso onak izan direla diote, eta landetxeak eta jatetxeak bete-betean aritu dira urte osoan zehar. Gibelean, baina,

bada kezka eta ardura inguruan. Turismoa era erraldoian bultzatzeak ekar ditzakeen ondorioez asko ez dira fio, eta emaitzez kezkatu dira. Halaber, oso gertu dago Lapurdiko eredua, eta bertan inork ez du nahi horrelakorik. Asmoak, baina, erraldoiak dira: 15.000 milioi pezetako inbertsioa heldu diren hamar urteotan, 600 lanpostu berri, eta 10.000 ohe inguru osoan. Hori gutxi balitz, nekazaritza eta industria bultzatzeko motorena nahi du izan Partzuergoak. «Urte hau izango da hausnarketarena» dio Pedro Perez Uriz presidentek, eta horren beharra ere azpimarratzen da nonnahi. Eztabaida bizia izan da, hain segur.



### ERAKUSKETAK



**Ana Mari Marin** Baztango artistaren erakusketa zabalik dago Iruñean, Aurrezki Kutxa Municipalak Garcia Castañon kalean duen aretoan. Azken bi urteotan egindako lanak daude ikusgai, eta urtarilaren 30a arte iraunen du. Ikusteko ordutegia ohizkoa da: lan egunetan 19.30etatik 21.00etara, eta jai egunetan 12.30etatik 14.00etara.

**Juan Satrustegi** Lizarrako artistaren erakusketa zabalik dago Lizarrako Banco Atlanticoaren kultur aretoan. 'Gure mendizerrak: Lokitz, Urbasa eta Andia' izenburupean, urtarilaren 31 arte izango dira ikusgai margolariaren olioak.

### IKASTAROAK



**Yoga**, aretoko dantzak, eskulana, jostura, masaia, pintura eta marrazkia, antzerkia, emakumeentzako autodefentsa eta bestelako ikastaroak antolatu ditu Iruñeko Alde Zaharreko auzo elkarteak. Izena emateko, Elkar-teak Aldapa kalean duen egoitzara joan edo 21 25 26 telefonora deitzea besterik ez dago.

**Autodefentsa** eta Autoestima, eta Gorputz Adierazpen ikastaroak antolatu ditu otsailerako Burlatako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako taldeak. Heldu den hilabeteko lehen egunetan hasiko dira, eta bi hilabete iraungo dute. Izena udaletxean eman behar da, 500 pezetaren truke.

### BESTELAKOAK



'Alaska, azken muga' izenburupean, diapositiba emanaldia eskainiko du gaur, hilak 21, Nafarroa Kirol Elkarteak. Arratsaldeko 20.00etan hasita, Elkarteak Jarauta kalean duen egoitzan botako dute. Xabier Goñik zuzenduko du emanaldia.

**Uholdeak** eta ibaien ur-etorriak aztertzeko, diapositiba emanaldia antolatu du Eguzki talde ekologistak biharko, hilak 22, taldearen egoitzan (Kale Berria, 4). Goizeko 10.30etan izango da, eta ondoren, Arga ibaiaren inguruetan ibilaldia egingen dute, parte hartzen duten guztiek.

**Koldo Amezttoi** ipuin kontalaria ariko da gaur ostirala, urtarilak 21, Barañaingo Haizea Kultur Etxean. 20.30etan hasiko da.

## NAFAR KRONIKA

JON ALONSO

### Vascuencearen Legea



Vascuencearen Legearen artikulu bakar bat aldutuko omen dutela eta ikaragarria da bazterrotan sortu den zalaparta, ez bakarrik, ordea, orain gutxi arte ohitura zen bezala, betiko leizezuloetatik probintzia honen nondik norakoak diseinatzeko dituztenen aldetik, baino herritar arruntak intelektual eritzi eta haiek bereiak euren burua arrazionaltzat jotzen dutenetik. Hor ibili dira oraingo legeak ezartzen duen bereizkeria gorria sutuki defenditzen, zeren izenean eta zuzenbidearenean, gainera, iraina eta infamia inongo eskrupulorik gabe erabiliz, argudioak perbertsioraino bihurtuz, trebeki. Horretan maisuak dira, gero.

Bitartean, legearen aldaketak berak lehen aipatu bereiz-

keria arinduko badu ere, ez du erabat deuseztatuko, baldin eta kasu zehatzen aurrean oso eskuzabal jokatzeko ez badute, behintzat; beste hitzetan esanda: lege aldatuak sortuko al du —Fustiñanan, demagun—, 'D' eredurik bertako guraso pare bakar batek honelakorik eskatuko balu? Zaila dirudi. Halakorik arrazoizkoa edo komenigarria litzatekeen eztabaidatzen hasi gabe, gaurkoz dakiguna da Leitzan badela haur bakarrek gela erdaldunik... Legeak ez ditu denak berdintzen, bistan da.

Legea ez izaki, ordea, bertatik bat: krisia zien konpetentziaren eraginez edozein sukaldetan aritzeko beharrik daude, ala jatetxe berria partzeko kreditu bila ari dira. Edozein kasutan, sekula eten ez den euskararen aurkako irizkiak sustatzeko saioaren fase berri bati ekiten ari zaizkiola uste izateko nahikoa arrazoi badago. Eurria euriaren ondoren.

Horren aurrean, hemengo euskaldungoak —euskaldungo 'aktiboak' edo dei genezakeena— ezpainak isil ditu, ez bada, azken bolada honetako moda errazari jarraiki, norberaren begiko partzaren berri emateko, Nafarroako haurrak olentxerozale eta erregezaleen artean nork eta nola banatzen dituen benetan aztertu nahi gabe.

Horren aurrean, hemengo euskaldungoak —euskaldungo 'aktiboak' edo dei genezakeena— ezpainak isil ditu, ez bada, azken bolada honetako moda errazari jarraiki, norberaren begiko partzaren berri emateko, Nafarroako haurrak olentxerozale eta erregezaleen artean nork eta nola banatzen dituen benetan aztertu nahi gabe.

### ASTEKO PERTSONAIK



**Juan Garcia Blasco**  
NUPeko errektorea



**Ruben Beloki**  
Pilotaria

Errektorea aldatu ez bada ere, Nafarroako Unibertsitate Publikoak demokratikoki aukeraturiko lehena da, orain arteko hiru aldietan Gobernuak izendatu baitzuten. Hiru hautagaietatik, azkeneko urte t'erdian karguan izan denak eskuratu du postua, bere programa «finkotasunean» oinarrituz. Euskara bultzatzeko asmoa ere adierazi du Garcia Blascok, eta EGUNKARIAri azaldu zionez, euskara ikasteko asmoa ere badu: «Ez daukat denbora handirik, egia da, baina ikasi nahi dut, eta horretan saiatuko naiz». Ez da ez erraza izango, errektoreak berak aitortu zuenez, eta badaezpada ez zuen eperik jarri. Bere programan hobekuntza eta aldaketa asko iragarri ditu; espero dezagun hitz hutsalak ez izatea.

Eskez Binakako Txapelketako finala izango da bihar Gasteizko Ogeta pilotalekuan; bertan, final batera iritsi den pilotaririk gazteenak parte hartuko du, eta irabazteko aukera handiak ere baditu. Ruben Beloki burlatarrak ari gara, hemeretzi urterekin finalean dagoen mutila. Hori bai —dena esan behar da, jakina— Julian Retegi ondoan izateak segurtasun handia ematen du. Baina fin ibili da Beloki, kontuan hartuz oraindik ikasteko asko duela. Ezagun du indarra eta klasea baduela, eta Galarzaren kontrako azken partiduan oso pilotakada onak eman zituen. Pozik agertu zen gaztea finalean zegoela jakitean, eta Retegik duela «meritu guztia» zioen. Bihar jakingo dugu esaten duten bezain lasaia eta hotza den Burlatako mutila.

### AHAZTU GABE!

#### JAIK



**Inauteriak** hasiko dira asteburu honetan Leitzan, beste leku guztietan baino lehenago, ohitura denez. Aurten, gainera, sekula baino egun gehiago izango dira, orain arte hiru baziren oraingo honetan bost izanen baitira. Aurrera Kultur Elkarteak antolatzen duen egitarauari, Torreako gazteak eta IKA elkarteak zaizkio gaur hasi eta astearte bitartean iraungo duen festa giroa alaitzeko. Gaur gauean afaria izango da, eta bihar, arratsaldeko lauetan, eskea egingo da herriko kaleetan barna. Gaueko afariaren ostean, gauerdia aldera, Izengabeak musika taldearen kontzertua izango da, Torrean. Igandean, berriz, bertso saio arrakastatsua izango da, urtero egiten dena. Aurtengoan, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Jon Sarasua, Manolo Arozena, Iñaki Murua eta Telleria bertsolariak ariko dira, Patxi Larretxeak gaijartzaile lanak egingo dituelarik. Arratsaldeko 19.30etan hasiko da, herriko zineman. Gauean, egunero bezala, berbena izango da, hotzari aurre egiteko asmoz. Astelehen eta asteartean, eskean ibiliko dira; haurrentzako parkea ere jarriko dute.

### JENERO XUMEKOAK

#### Heriotzaz bestaldean

Heriotzaz bestaldean, zerbait balego eta inork ikusiko balu, konta diezagula, Arthur Gordon Pym-ek kontatu zuen bezala, zein osinetan bukatzen zen itsasoa.

ELIAS SARASA - ERRO

### ADI!

#### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, asteleheneetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

#### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

#### RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

#### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.



Iruñea

# Sortzen-en kongresua bihar

T. SATRUSTEGI / IRUÑEA

Sortzen mugimenduak barneko eraketa formala eta benetako estatutuak eratzeko kongresua egingo du larunbat honetan Iruñean, Amaiur Ikastolaren egoitzan. Batzar irekia da, eta gonbidapen berezia egin diote ikastetxeetako jendeari. Dagoeneko, ponentzia bat osatua dago, zuzenketa batzuekin, eta hortan oinarrituko da eztabaida.

«Zuzenketa eztabaidatu ondoren adostasuna iristen badugu ez da bozketarik izango. Bai ordea, beharrezkoa ikusten badugu», Iñaki Biain taldekideak adierazi zuenez. Taldea sortu zenetik ez dute inolako antolaketarik egin, eta bilera ostean zehaztasun gehiago izango dira, barne antolaketari dagokion gaian behintzat.

Batzararen aurretik egoeraren azterketa plazaratu du Sortzen-ek, Euskararen Legea eta bere bilakaera irakaskuntzan «oztopo nagusi» bihurtu dela esanez. Alde horretatik, taldearen ustetan, «lotsagarria da 'Komitente' izeneko lurralde bat legearen arabera hiru zatitan banatzea, lege honek egiten duen bezala».

Bestalde, egun, gertatutako prozesua dela medio, batzuek,



Euskararen Legearen aurkako protesta franko izan dira Nafarroan.

hezkuntza publikoa Administrazioarenarekin «nahastu eta identifikatzen» dutela dio Sortzen-ek, «gero eta itsuago gainera. Gauzak horrela, ontzat eman behar da Madriletik egindako erreforma, gure kultura eta hizkuntza erabat ahazten badu ere».

Era berean, onartu egin behar da, Sortzen-en esanetan, hezkuntza-administrazio elebakar eta kulturabakar erdalduna, eta baita euskal kutsua duen guztiari oztopoak jartzen dizkion hezkuntza-ikuskaritza ere. Alde horretatik, beste hainbat gauza onartu

behar direla diote: San Francisco ikastolaren eskaera, Altsasuko L.H. Institutuan gertatzen dena, Agoizko eskolako afera, Axular ikastolaren auzi luzea, irakasle-goarekiko harrokeria, langilegoaren murrizketak, «Eatio iraingarriak» eta abar.

## Arbizu

# Kiroldegiko lanak heldu den hilean hasiko dituzte

IRUÑEA

Sakanako lehen igerileku estalia izango du Arbizuk, bertan egin behar den kiroldegiaren barruan. Aste honetan bertan sinatu dute horretarako akordioa Antoni Ieregi Arbizuko alkateak eta Ricardo de Leon Gizarte Ongizate, Kirol eta Etxebizitza kontseilariak, Nafarroako udaletan egiten ari diren inbertsioen egitasmoari jarraiki. Kiroldegiak 160 milioi pezetako aurrekontua izango du, eta horietarako 100 Nafarroako Gobernuak paratuko ditu. Bertan izango dira, igerilekuaz gain, pista, aldategiak, rokodromoa eta gimnasioa. Hau izango da, hain zuzen ere, Arbizuk duen lehen kirolgunea.

Asteartean sinatu zen hitzarmena udaletxean, eta dena ongi joanez gero, lanak otsailean hasiko dira, eta 1995era arte iraungo. Orubeak 5.000 metro koadroko zabalera hartuko du, eta orain-



Arbizuk izango du Sakanako lehen igeritoki estalia.

go bideberri ondoan dago. Kontuan hartu behar da autobidearekin kale bihurtuko dela errepidea. Nafarroako Gobernuak emango dituen aipatu ehun milioietatik hogeita hamar 1993ko aurrekontuaren barruan sartuko dira, hogeita hamar 1994ekoan, eta berrogeita

hamar 1995ekoan.

Arbizuko Udalaren kontura egingo dira, bestalde, lanak, eta hasierako proiektua Nafarroako Gobernuak onartu beharko du. Edozein aldaketa eginez gero, gastuak Udalak ordaindu beharko lituzke.

## Altsasu

# Sakanako VI. Pilota Txapelketa

IRUÑEA

Sakanako VI. Pilota Txapelketaren hasiera izango da bihar, larunbata, hilak 22, Euskal Herriari pilotalekuan, goizeko 10etatik aurrera. Sakanako Kirol Batzordeak eta bertako pilota eskolek antolatuta, 82 bikotek hartuko dute parte, aurrebenjaminen eta kadeteen bitarteko maila guztietan. Txapelketa honen laguntzaileak izan dira Nafarroako Pilota Federazioa, Etxarri-Aranazko Udala eta Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua.

Bikoteak Sakanako sei herrietakoak dira, honela banatuta: Olaztiko 15 bikote, Altsasuko 34, Etxarri-Aranazko 11, Arbizuko 3, Arakil-Uharteko 7 eta Irurtzungo 12.

Bikote gehien izango duen maila benjaminena izango da, 30 bikoterekin, eta gutxien eramango duena kadetea, bederatzi bikoterekin. Bihar, beraz, inguruko promesa berriak ikusteko aukera izango da, zortzi partidua izango baitira goiz osoan zehar, maila guztietan.

Navarrerriako iturritik

Juan Kruz Lakasta

## Gipuzkoar futbolinak

Lin Ton Taun taldearen musika ez dut gogoko. Ez zait iruditzen haien trikitixa eta rock & rollaz osaturiko anabasari inolako freskotasuna darionik, eta ez dut uste etorkizuneko Negu Gorriak direnik, Fermin Muguruzaren lagunak badira ere. Atzo Reverendosen jo zuten, eta kontzertura joan zirenek agian gustura pasatuko zuten gaua. Ni ez nintzen joan. Ezin izanen dut, beraz, txoko honetan horren kronikarik egin.

Dena dela, aukera aprobetxatuz, Gipuzkoako gauean maiz topatzen den eta gustatzen ez zaidan beste gauza bat aipatuko dut, gipuzkoar futbolina. Bada honako hau esateko ordua: gipuzkoar futbolinak, oin bakar eta karratuko panpinak dituzten horiek, gorrotagarriak dira. Ea noiz ikasten duten futbolinetako panpinek bi oin eduki behar dituztela. Gora Nafarroako futbolina!

Seguruenik, irakurle, nirekin bat egingen duzu Nafarroako futbolinak aldarrikatzeko orduan. Bat egiten baduzu, ziurrenik asteburu hamaika futbolin partidu jokatzeko dituen horietako bat izanen zara, asko baitzarete



—agian baikara esatea egokia— iruindar futbolin-zaleak. Galdetu al diozu inoiz zeure buruari zer dela eta pasatzen dituzun horrenbeste ordu futbolin? Nire lagun baten arabera, futbolinaren bitartez asegabeko behar sexualak sublimatzen dituzu. Psikologoa da bera, Freudzalea, eta horixe esan zidan joan den asteburuan, Caldereria kaleko Toki tabernako futbolin nire txanda iritsi zain nengoela.


Beraz, Eguzki Irratiko mahai nazionala futbolin jo ta ke, kima luzedun eta praka estudun friskiak su ta gar, edota Lore Etxeako kima zurrutodun okupa hippiak jo ta fuego ikusten dituzuenan, badakizu zein izan daiteke euren arazoa. Mozorroak mozorro, esaera zaharrak diotenaren arabera Iruñean ez da bekata, miraria baizik. Edozein futbolin tartean daukagula elkar ikusiko dugulakoan, agur, eta gora Nafarroako futbolina!

**B**ertizko Partzuergo Turistikoak lehen urtearen balantzea egin berri du, inguruarendako ekarri dituen alde onak azpimarratuz. Arlo honetan Nafarroan egiten ari den saiorik handienetakoak, baina, eztabaida piztu du inguruan, zer turismo mota nahi den eta zertarako nahi den zehazteko. Turismoa, berriz ere, aipagai.

## Bertiz, turismoa berriz



Goian, Arizkun, eta ezker-  
raldean, Bertizko Etxea.  
Behean, Elizondoko ka-  
rrika bat.



ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Partzuergoari buruz dauden ikuspuntuak arras desberdinak dira non galdetzen den. Bere barruan —turismo arloan edo udal-letan— dauden ustetan, lehen urte honen emaitzak «oso positiboak» izan dira, baina kanpotik ikusita, errezeloa eta mesfidantza dira nagusi. Nolanahi ere, bi arlotan banatzen da eztabaida: turismoa bera eta Partzuergoa, erakunde gisa hartuta.

Dudarik ez da urte ona izan dela turismoarendako inguruan. Partzuergoak antolatutako jardunaldiek eragina izan dute inguruko ostaluetan, landetxeetan eta jatetxeetan, eta elkarte horien balantzea benetan ona izan da. As-teburu frankotan beteta egon dira horietariko asko, eta argitaratutako gidetik eta aurkezpenek oniritzia jaso dute arloko profesionalen artean.

Erakundeak kanpotik ikusi dutenen artean, ordea, badira zenbait kezka. Eta lehendabizikoa, aurrekontuena. Iazkoa 44,6 milioi pezetakoa izan zen, eta horretarako hainbat erakundetatik jaso da dirulaguntza: Leader egitasmoak % 44,6 eman du; Nafarroako Gobernuak % 35; Espainiako Gobernuak % 9,4 eta gaintzekoa udalek eta Partzuergoko elkarteek —merkatariak, jatetxeak, ostaluetak, landetxeak— paratu dute. Aurtengoa ere nahikotzat jotzen da dirulaguntza dute bertan, lortutako hitzarmenei esker, baina duda nagusiak

hurrengo hamar urterako aurrikusita dauden proiektuetarako aurrekontuetan daude. Partzuergoaren datuen arabera, ezarritako helburuak lortzeko 15.000 milioi pezetako inbertsioa beharko litzateke, eta horietariko mila erakundeak berak paratuko litzuzke.

«Egia da zenbaki horiek harritu egiten dutela», dio Martin Garde Elizondoko zinegotziak, «baina gehienbat ikerketa bat da, eta ez dut uste gauzatzen ahal denik. Hamar urte hauetan izugarriko jauzia izanen litzateke, eta ez dut uste izan daitekeenik. Proiektu bat da, asmo onez egin». Iritzi berekoa da Juan Jose Txoperena Igantziko alkatea. «Mila milioi horiek baino guttiago aterata ere, konformatu beharko».

Baina Partzuergoan, erakunde moduan askorendako «handiegia» izanik ere, turismoari buruz erabili beharreko filosofia da eztabaidaren sorbururik handiena. Toki guztietan bezala, «turismoa: zertarako eta nola?» da galdera. Martin Garderen arabera, urte honek ekarri duen gauzarik positiboenetakoa izan da, hain zuzen ere, eztabaida hori plazaratzea. «Lehendabiziko aldiz azaleratu da eztabaida, eta hori ez da guti. Baliagarri izan zaigu jakiteko zer nahi dugun, zer baliabideak erabili behar ditugun horretarako, eta zer neurri hartu behar ditugun». Bere ustetan, turismoak, inguruko esperientziak kontuan harturik ere, ez du zergatik negatiboa izan beharrik, eta arlo hori

beste industri mota baten gisan hartu behar dela dio. «Turismoaren garapena industrialki behar dugu ikusi: produktu bat saldu, eta hortik etekinak atera. Ez dugu ikusten ahal folklorismo baten barruan. Hor gelditzen bagara ez dugu funtsik egingo».

Horretarako Lapurdin gertatu dena ez dela ahaztu behar azpimarratu du zinegotziak, baina ez du uste zonan antzekorik gertatuko denik. «Lapurdik hartzen du gure zonaren zabalatasuna, baina bertan 21.000 ohe daude turismoarendako, eta gure helburua da hamar urte hauetan 10.000 inguru sortzea. Beraz, bada diferentzia, eta konparaketak ezin dira egin».

**KULTUR ARLOKO KEZKA** Beste kezka nagusienetakoa kulturaren arlokoa da. Partzuergoak egindako egitasmo orokorrean aipatzen da garapen turistikoak «gure ondare kulturalaren babestea oinarritzat hartuta» egin behar dela, hizkuntza, ohiturak eta nortasuna indartuz, baina horretarako eztabaidarik ez dela izan dio Mattari Alzuarde Bidasoa Kultur Zerbitzuak (BKZ) elkarteak. «Oso garbi izan behar dugu kultura lehen mailako elementua dela turismoaren barruan, eta ez zaiela bakarrik beste arlo ekonomikoari garrantzia eman behar».

Horren inguruan, kultur elkar-  
teek izan beharreko eginkizuna

azpimarratu du. «Partzuergoaren barruan ez daude sartuak elementu guztiak, talde kulturalik ez baitago, akaso nahi ez dutelako. Iaz saiatu ginen eztabaida egiten horri buruz, eta ez zen lortu. Utzikeria bada, eta, nik uste, ez da ikusi turismoak ekar dezakeen aldaketa sozioekonomikoaren garrantzia».

BKZ lehiatu zen Partzuergoaren gerentzia eramateko, eta bertan ere, turismoak izango duen lekua azpimarratu dute. «Europatik markatuta dago inguru hau bultzatu egin behar dela, eta jakinaren gainean egonik, zerbait egin behar da. Ez gaitzen atzera gelditu eta, beraz, mugak paratu ditzagun paratu behar diren tokietan».


Baztanek betidaniko tradizio handiago izanez, bertan erroto da gehienbat asmoa, eta Malerrekan eta, bereziki, Bortzirietan, oraindik urrun samar ikusten da gaia. Hori «denbora kontua» dela diote Partzuergoan, baina gibelean, turismoak industriaren beste arloekiko izan beharreko harremana azaltzen da. «Koordinazio falta handia dago beste arloekin», dio Alzuardek. «Arlo bat —turismoa— ari da ongi mugitzen, baina besteak —nekazaritza, industria— zer? hori da debatea». Beste batzuek, «folklorismo kutsua» antzematen zaio proiektuari, eta dudatan jarritzen dute, Partzuergoan esaten dutenaren kontra, ekonomiaren motorena izan daitekeela. Hauen ustetan, egokiago litzateke plan orokorra zehatzea, horrela nekazaritzari, industriari eta turismoari dagokien zeregin eta lekua hobeki ikusteko aukera emanen lukeelakoan.

Eztabaida mahai gainean dago. Batzuk hasiak dira gurditik tiraka, beste batzuen ustetan, ordea, gurdia ez dio ertsiko.





## XAKEAN



Nafarroako emakumezko xake txapelketako partida, 1993ko abenduaren 28an jokatu.

Ohiana Gonzalez-Eva Ganuza.

1. d4, Zf6; 2. c4, d5; 3. Zc3, c6; 4. Ag5, Ae7; 5. Zf3, 0-0; 6. e3, b6. Orain arte, liburuko irekiera izan da. 7. Ad3, h6; 8. Af6, Af6; 9. 0-0, Aa6; 10. b3. Hobearen 'd5' jokaldia. Lasaiagoa, bederen, 'f6-ko' alfilari jokorik ez emateko. 10...c5; 11. Ge1, Ab7; 12. a3, Zc6; 13. d5, d5; 14. Ac2, Aa6; 15. Gb1, Ge8; 16. b4, Ac4; 17) Ad3. 'Ab3' egokiagoa izanik, damaren bidea oztapatu dute, eta peoi bat izanen da ordaina.

17...d4; 18. Za4, e3; 19. e3, b5; 20. Zc5, Ze5; 21. Ze5, Ge5; 22. Zb7. Peoiaren galera dela eta, txurien konzentrazioa moteldu egin da, eta helbururik gabeko jokaldi honek bigarren peoia galdu eta partida maldan behera jartzea ekarriko ditu. 22... De7; 23. Ac4, b-c4; 24. Zc5, Ge3; 25. Ge3, De3 xa; 26. Ehl, Ge8; 27. Za4, d4; 28. Gc1, c3; 29. h3. Ikus koadroa. Beltzek azkar eta problemarik gabe erabakiko dute bukaera hau.

29... d3; 30. Zc3, Ac3; 31. Gc3, De1 xa; 32. De1, Ge1 xa; 33. Eh2, d2; 34. Gd3, d1=D; 35. Gd1, Gd1; 36. a4, Gd4; 37. b5, Ga4; 38. Eg3, Gb4; 39. Ef3, Gb5; 40. Ef4, a5; 41. Eg4, Gc5; 42. Ef4, Ge6; 43. Ef5, a4; 44. Ef4, a3. Txuriek galdutzat eman zuten partida, erraz emandako peoiak gogoan ziur aski.


## Linda Euskal Herrian

Linda izeneko amerikar neska eder eta xarmant bat Euskal Herria itzuli zen. Aspaldidanik herrialde zoragarri hau bere begiekin ikusteko gogoan zuen. Bere aitona eta gurusoak jatorriz euskaldunak baziren ere, bera ez zen inoiz Euskal Herria etorri. Orain, aukera hau izanik, zoragarria iruditzen zitzaion, nahiz eta Ameriketara jaio, bihotzez euskalduna sentitzen baitzen. Linda beti saiatu izan zen bere aitona erakutsitako euskara zaharra ikasten eta erabiltzen, nahiz eta hau praktikan gurusoekin asko galdu, hauek ingelesa ikasi bezain pronto euskara nahiko bazterturik laga baitzuten. Nahiko tristea, penagarria Lindaren ustetan, baina berak bere aldetik dena jarriko zuen euskara hizkuntza berreskuratzeko eta horretarako, zer hobea Euskal Herria etortzea baizik?

Bere ikusmina eta Euskal Herria ezagutzeko grina geroz eta sakonagoa zen. Euskal Herria etorri eta guztiz desberdina zen, mendi orlegi zoragarriak, zuhaitz mota asko eta beste hainbat eta hainbat gauza zoragarri. Euskal Herria sartu bezain agudo, lanpostu bat aurkitu nahi zuen, horrela bertako ohitura, kultura... ezagutzeko aukera gehiago izateko. Zorte handiko neska zen Linda, eta bere edertasunak berehala ostatu batetan lan egiteko aukera eman zion. Lo handirik egin gabe joan zen bere lehenbiziko egunean. Neska irekia eta alaia zenez, berehala lagunak egin zituen.


Jadanik aste bat iragan zen, eta txit gustora aurkitzen zen Linda, eta are gehiago ezezagun interesgarri hura lehen aldiz ostatura sartu zenetik. Nahiko gizon misteriozua zen. Lindaren begiek ezezagunarekin bat egin zuten, eta bihotza kiribildu zitzaion, bere pausak berarengandik geroz eta hurbilago entzuten zituena aldi berean. Linda xamur-xamur zuzendu zitzaion, eta bazirudien gizon hark ere bazuela halako jakinmin bat Linda ezagutzeko. Geroztik sarri etortzen zen Pello ostatura, honela baitzuen izena, eta denbora laburrean biok geroz eta gehiago ezagutzen hasi ziren, eta Pello Linda jasotzera etortzen zen.

Ostatuko jabeak, Joxek, Lindari bere iritzia eman zion. Nahiz eta ondo ezagutu ez, Pellori buruz entzunak zituen gauzak ez ziren oso garbiak, droga munduan sarturik zegoela esaten baitzen. Lindari ez



Jaione Alduntzin

(LEITZA)



zitzaion horrela iruditzen, eta jaramonik egin gabe aurrera jarraitu zuen bere harremanekin. Hilabete bat jadanik igaro zen, eta ordurarte gauzak arrosa kolorekoak izan baziren ere, gauzak okertzen hasi ziren.

Joxek, egun batez hilketa bat ikusi zuen eta hiltzailea Pello izan zenez, lekuko izan ez zedin, tiro batez hil zuen. Lindak, ordura arte ez zuen ezer txarrik pentsatu baina bi asteren burura beste hilketa bat gertatu zen. Orduan ostaturiko jabearen semea hil zuten. Pello ez zen ongi ikusia ostatu horretan eta beharbada, Joxeren semea bere aitaren hilketa ikertzen hasi eta zerbait aurkitu zuelako hil zuten.

Lindari, hura ez zitzaion asko gustatzen eta aldi berean zerbait arraroa ikusten zuen Pellon. Hala ere, orain Joxeren bigarren semetaz maitemindurik aurkitzen zenez, eta honen hilketa susmoak Pello-

rengana erortzen zirenez, Lindak Pello-rekin jarraitu zuen, zerbait ateratzeko asmoz. Nahiko arriskutsua zen guzti hura, baina bere lana zen, berarekin hain ongi portatu zenaren ostaturiko jabearen alde zerbait egitea, eta are gehiago, bera izanik Lindari kontu handiz ibiltzeko esan zion lehena.

Orduak, egunak, asteak... aurrera zihoazen, baina oraindik ez zuen ezer handirik lortzen, hori bai, Pello negozio zikin ea ilunetan sarturik zegoela argi zegoen. Baina nola frogatu hori? Zer egin? Lindaren ustetan, beregain zegoen guztia eta ahal zuena egin behar zuen hiltzailea aurkitzeko.

Lindari Pellori telefonoz deitzea bururatu zitzaion. Dei horretan hiltzailea nor zen bazekiela adierazi zion. Pello, karea bezain zurbil geratu zen hitz horiek entzutean, eta neska ahotsa zenez, Linda izan zitekeela bururatu zitzaion. Lindaren etxean agertu zen ezerk kezkatuko ez balu bezala, bere barrukaldean urduritasuna nagusi izan arren, baina Linda ez zen baturer kezkatu bere ondoan Mikel baitzegoen, bere benetako senargia.

Begi bistan zegoen Pellori ezer gutxi axola zitzaiola Linda edo beste edonor, bi aldiz pentsatu gabe hau ere hiltzera baitzihuan. Garrantzitsuagoa zen bere lan zikina eta dirutza laguntasuna eta maitasuna baino. Orduan jakin zuen Lindak erabilia izan zela, nahiz eta berak ere berarekin berdina jokatu. Hala ere, hilketa saiakera besteak baino hobeto amaitu zen, Mikelek eragotzi baitzuen.

## Belateko lapurrak, euskal far west

Lantzeko lapurrak oso ezagunak dira, eta ez dago haiei buruz deus berririk esaterik. Hala ere beste alde bat azpimarratzea interesatzen zaigu. Gure ustez, Euskal Herriko gaizkileetan filmagarriena dirak dira. *Far West*-en gisako pelikula filmatu zuten, Sam Peckinpah-en 'Billy The Kid and Pat Harret' bezelakotua.

Haien urterik oparoenak 1810etik 1818ra bitartekoak izan ziren. Halakoetan ohi denez, gerraostean lagun franko ez dira erabat pakera erreziklatzen. *Far West*-eko zenbat pelikulatan ez

ote digute hau behin eta berriro kontatu? Garai bera ere filmagarririk askoa da. Iraultza industrialia baina lehenagokoa eta guda eta gerokoa. Napoleonen aurka borrokatutakoan, bazekiten franko ongi lagunak garbitzen. Miseria gorria ere behar da lapurrak basora igortzeko, eta gerraosteko goseteak gibelean hozka egingo ziren.

Esan ditzagun pelikula hauen antezelariak. Juan Martin Zenoz, Pedro Martin Zenoz, Juan Bautista Lanz, Pedro Esteban Zenoz, eta aldizka besteren bat gehiago. Gehienak anaiak ditugu, Dalto-

### JUANTXO URDIROZ



Haien hildotzak  
laurdenkatuta  
deliktu odoltsuak  
gertatu ziren  
lekuetan barreiatu  
zitezuten

narrak, Jamestarrak eta bezelakoak. Sena berekoak izateak asko laguntzen omen du gaizkilegintzan. Eta juxtu familiakoa ez zen partaide batek salatu zituen, Armasa jaunak.

Garraio gintzaren inguruan beti diru aunitz mugitzen da eta horren bizkarretik piratak bizi behar. Belate Nafarroaren garraio sarean oso ate garrantzitsua omen da. Hobe esanda derrigorrezkoa da hortik pasatzea Baionara eta bestera joateko. Eta hor dago Lantz herria, portuaren sarpidean. Informazioa lortzeko modua ere oso zinematografikoa da. Haietariko bat sasi-polizia zen, 'guardiano', eta jakina, harengana babes bila etortzen zirenei laguntza eman eta gero taldeko beste informazioa pasatzen ziren.

Maiz maizik ere tabernan laginak mozortu eta informazioa lortu ohi zuten. Bukaera oso odoltsua da, jeneroari dagokionez. 1919ko abenduaren 4ean urkatu eta haien hildotzak laurdenkatuta deliktu odoltsuak gertatu ziren lekuetan barreiatu zituzten.

Eta Sam Peckinpah-en 'Billy The Kid and Pat Harret' pelikula bezala, Bob Dylan bati pagatu zioten bertsoak egiteko beraiekin gainean. Hau hasiera besterik ez da: Gauza bat deklaratzera nik behar dut hasi, denbora asko ezteela zer dugun ikusi. Enkargatu nauena orain ez da bizi, lagunekin batean zuten galeraz horiek bekatuek baitzuten merxi.

**E**remu mistoko euskara zerbitzua duten herrietan bada aldizkari berria, joan den astean banatu baitzen 'Ze berri?', euskararen inguruko bertako berriak jasoko dituen aldizkariaren lehen zenbakia. Euskararen gainean 'axolagabe' direnei zuzenduta, bi hilabetero banatuko da, dohainik, buzoi guztietan.

## Ze berri? Aldizkari berri

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Iruñerrian bizi bazara, joan den astean jasoko zenuen, hain segur, euskaraz eta erdaraz egindako argitalpen berri hau, nahiz eta zehatz-mehatz nondik heldu ez jakin. Hemendik aurrera, buzoi guztietara bi hilabetero heletzea izango da helburua, eta horretarako egin den proiektuak aurrera ateratzeko itxura guztiak ditu.

Asmoa Euskara Zerbitzuetatik sortu zen, Iruñerrian oro har, euskararekiko dagoen jarrera kontuan hartu eta gero. Izan ere, gogoratu behar da inguru horretan biltzen dela Nafarroako populazioaren erdia, eta datuek diote populazio horietarik % 30 axolagabea dela euskararekiko, hau da, ez duela ez aldeko ez kontrako jarrerarik. Ez du parte hartzen baina ez du oztopatzen. Multzo

honetan badu zerikusirik Nafarroako komunikabideek euskarari eskaintzen diotena. «Salbuespen batzuk kenduta, oso tratamendu eskasa eta txarra ematen zaio, eta hutsunea bete asmoz atera dugu aurrera proiektua».

Zortzi euskara zerbitzu dira aldizkariaren bultzatzaileak: Antsoain, Atarrabia, Barañain, Burlata, Lizarra, Uhartea, Esteribar, Eguesibar, Zizur Nagusia, Goñerri, Ollaran, Etxauri, Orkoien, Aratzuri eta Asiain biltzen dituztenak, hain zuzen ere. Hau da, eremu mistoko gehienak, Gares kenduta. Denei eskaini zitzaizen aldizkariaren parte hartzeko aukera, baina Garesek, kasu, atera berria zuen aldizkari bat herrian, eta pentsatu zuten harekin nahikoa zutela». Eredu mistoan mugatzean arrazoi praktikoak nagusitu ziren. «Euskal eremuan bestelako lana egin behar da, han

# Ze berri?

Revista de los servicios municipales de euskera

Antsoain-Atarrabia-Barañain-Burlata-Lizarra-Uhartea-Esteribar-Eguesibar-Zizur Nagusia-Goñerri-Ollaran-Etxauri-Orkoien-Aratzuri-Asiain

1

I-II  
1994

Hola amigo/a :

Tienes en tus manos el primer número de ZE BERRI?

¿Cuánta gente habla euskera en Navarra? ¿Cuándo y cómo nació el euskera unificado o batua? ¿Cuáles son los últimos libros y discos que se han publicado en euskera?

Para dar respuesta a estas preguntas y a muchas más que surgen en torno a esta lengua los Servicios de Euskera de varios municipios y la Dirección General de Política Lingüística del Gobierno de Navarra han puesto en marcha este nuevo proyecto. Nos encontrarás cada dos meses en tu buzón. No te olvides de esta cita. ¡Hasta pronto!

Kaixo adiskide horri:

Eskutartean duzun hau ZE BERRI? aldizkari-txoaren lehenbiziko alea da. Ikusiko duzunez hemen jakitera ematen ditugun albisteak era betera edo bestera euskararekin badute zer ikusirik. Erderaz dago idatzita, ordea. Honen arrazoia da ahalik eta jende gehienarengana iritsi nahi dugula. Eguneroko bizitzan euskararekin inolako loturarik ez dutenengana ere, noski. Horregatik zenbait herritako Euskara Zerbitzuek eta Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiak jarri dute mar-txan begien aurrean duzun hau. Zure gustoko izanen delakoan gaude. Agur eta hurrengora arte!

### MAS DE 50.000 PERSONAS HABLAN EUSKERA EN NAVARRA

Según los datos que se reflejan en el último censo, el de 1991, 500.250 personas vivimos actualmente en Navarra. El 10,2% de esta población habla euskera, esto es: algo más de 50.000 personas. La cifra se eleva casi hasta 60.000 en lo que se refiere a comprensión de la lengua y son casi 30.000 los que son capaces de expresarse correctamente por escrito.

Es difícil precisar cuánto ha

número de hablantes utilizando otras categorías (vasco-parlante, casi vasco-parlante y castellanoparlante).

En el último estudio se especifica si la persona sabe leer, escribir o hablar. Aún así, se estima que ha habido un aumento del 1,1%. De esta manera, se puede decir que la situación del euskera en Navarra está estabilizada. Desciende la población total pero el vascuence gana hablantes, poco a poco.

	Habitantes	entiende	habla	lee	escribe
NAVARRA	500.250	59.743	51.147	35.487	29.324
Zona Mixta	268.255	21.916	16.696	14.275	12.102
Zona no Vascofona	178.349	2.181	1.685	1.487	1.257
Zona Vascofona	53.646	35.646	32.766	19.725	15.965



Edurne Domeño eta Reyes Ilintxeta erredakzioak.

JOXE LACALLE

hori bereganatzea funtsezkoa jotzen dute euskara teknikariak, eta hortik etorri da aldizkaria sortzeko asmoa, Isidro Rikarte Burlatakoak azaldu duenez. «Ikusi genuen jende horri eman behar zitzaiola euskararen inguruan sortzen diren berriak, eta aldizkaria horregatik da, gehienbat, erdaraz. Izan ere, oso garrantzitsua da multzo hori gureganatzea eta euskararen alde bihurtzea, eta horretarako bide onena da euskarak sortzen duena haiengana helaraztea». Asmo

ez baita axolagabe dena. Beraz, sentsibilizazioa ez da beharrezkoa. Han konpaktazioa, euskararekiko fidelitasuna eta antzeko lanak egin behar dira, baina ez aldizkari honek nahi dituenak».

**IRUÑEKO UDALA KANPO**

Bada, baina, huts galanta, Iruñeko Udalarena, hain zuzen ere. Eremu eta baldintza berberak izanik, ez du parte hartu nahi izan proiektuan, eta hori, «mingarria eta huts nabaria» dela dio Rikartek. «Iruñeko Udalare-

kin gertatu da beti gertatzen dena: egiten ditugun kanpaina guztietan ez duela parte hartzen, eta ez Euskara Zerbitzuarengatik, Udalak berak parte hartzen ez duelako baizik». Hori, bereziki larria dela dio Burlatako teknikariak, zalantzan jartzen baitu, bere ustetan, hizkuntz politika osoa. «Kontuan hartu behar dugu Iruñeak duela Nafarroako populazioaren puxka oso garrantzitsu bat, eta hemen hizkuntz politika sartzen ez badugu, politika hori beti ibiliko da herren».

Aldizkariaren lehen zenbakia.

## Hilabetekaria gogoan

P.U. / IRUÑEA

■ Aldizkariaren maketazioa eta diseinua xumea eta garbia da, eta bertan berri motzak eta ulerterrazak nagusitzen dira, arinak. Zortzi orrialde ditu 'Ze berri?-k' eta horietariko lau informazio orotarikoak dira —berriak, elkarriketak, datuak—, beste hiruk herrietako berriak jasotzen dituzte eta eta azkena agenda da. Erredakzioan bi langile ari dira egun: Reyes Ilintxeta testuaren erredakzioan eta Edurne Domeño diseinu eta maketazioan. Bertan, zortzi euskara zerbitzuek biltzen dituzten herrietako berriak ezezki, Euskal Herri osoko gaiak ere ukitzea dute helburu. «Euskarari zuzenean lotutako albisteak», azaldu du Reyesek, «izango dira aldizkariaren ardatz, eta guk landutakoaz aparte, herrietatik bidalitako artikuluek, teknikariak beraiek egindakoek, eta beste kolaborazioek ere izango dute tokia».

Aldizkaria egiteko bost bat proiektu aurkeztu ziren, eta horien artean bi gazte hauek egindakoa aukeratu zuten euskara zerbitzuek. Ondoren, Hizkuntza Politikan aurkeztu zen, dirulaguntza lortu asmoz, eta hori eskuratuta, aurrera eramane zen ekimena. Lehen zenbakiak 26.000 aleko tirada izan du. Hasierean bihilabetekaria izango bada ere, asmoa bada, harrera ona izanez gero, hilabetekari bihurtzeko, «jendeak, bestela, ez baita ongi noiz helduko zaion etxera aldizkaria».

Helburua ere garbi dute erredakzioan. «Herri hauetan guztietan bada jende asko axolagabe euskararekiko, hau da, ez kontrako ez aldeko jarrera duena. Badakite hor dagoela, baina ez diote aparteko garrantzirik ematen. Guk azaldu nahi diegu beren etxean ez baina ondoko etxean mintzatzen dela euskaraz, eta bizirik dagoen hizkuntza dela, eta erabiltzen dela».

# «Elkartea serioa da»

A. BARANDIARAN / IRUÑA

**EGUNKARIA.**— Asteburu honetako da zuek egiten duzuen lehendabiziko ekitaldi publikoa. Horrek esan nahi du elkarteak —batzuek pentsatzen zutenaz beste— ez dela txapelzaleen herri bilkura?

**JAVIER GARISOAIN.**— Bai, jakina. Elkarteak bitxia da, baina horrek ez du esan nahi serioa ez denik. Ekintzak antolatuko ditugu, eta aurtengoa ongi ateratzen bada, urtero izango da txapelzaleen herri bilkura. Ur-

teroko emango diegu, halaber, sari bat, txapelaren defentsan nabarmendu direnei.

**EGUNKARIA.**— Bazkide guztiak nafarrak zarete?

**GARISOAIN.**— Gehienak, baina badira bi salbuespen, bi emakume, hain zuzen ere. Bata Madrilgoa da, eta bestea Palmakoa.

**EGUNKARIA.**— Zer espero duzue festa honetatik?

**GARISOAIN.**— Espero dugu jai eguna edukitzea. Espero dugu jendearen aldetik anaitasun giroa lortzea txapelaren inguruan, bereziki elkarteekin,

peñekin, talde herritarrekin eta abarrekin. Nahi dugu jende hori txapelarekin batu, eta hori izango litzateke arrakastarik handiena.

**EGUNKARIA.**— Zer izena nahiago duzue edo erabiltzen duzue, 'boina' ala 'txapela'?

**GARISOAIN.**— Berdin digu. Ez dago batere arazorik horrekin. Normalena izango litzateke erdaraz ari zarenean 'boina' eta euskaraz ari garelarik 'txapela' esatea, baina badira erdaraz ari direnak eta 'txapela' esaten dutenak eta kontra-

rretarako dugu tema berezia, eta orain askoz ere gehiago erreparatzen diogu jendeari, txapela daraman edo ez ikusteko. Ez da, nolana ere, izugarriko gorakadarik izan.

**EGUNKARIA.**— Eta gazte bat txapela batekin ikusten duzue, pozez txoratzen zara?

**GARISOAIN.**— Jakina. Ez da ohizkoena, baina ikusiko ditugu luze gabe. Nik beti esaten dut txapela baino herrikoagoak direla praka bakeroak, hori baitzen Ameriketako azientetan lan egiteko erabiltzen zen praka. Hori baino zatarragorik... eta izugarriko arrakasta izan zuen. Beraz, ez dago arrazoirik txapela berriro modan jar ez dadin.

**EGUNKARIA.**— Hala ere, txapelak dituen esanahi asko kentzeak zaila dirudi...

**GARISOAIN.**— Bai, baina hemen ez da hausturarik izan. Hau da, gizarte batetik bestera igarotzerakoan txapelari eutsi diogu, traumarik gabe. Beste tokietan aldrebes gertatzen zen, eta herritik hirira etortzean dena utzi behar zen han. Hemen ez.

**EGUNKARIA.**— Eta zer egin beharko litzateke txapela toki guztietan ezartzeko?

**GARISOAIN.**— Gure helburua ez da jendea behartzea. Eraman dezala nahi duenak. Guk erakutsi nahi diogu jendeari txapela eramatea ez dela batere lotsagarria, oso geurea baita. Gainera baditu aldeko asko: hotzetik eta berotik babesten du, estetikoki oso ongi gelditzen da, eta bakoitzaren izakera isladatzen du.

**EGUNKARIA.**— Burusoiltzen duela ere esaten dute...

**GARISOAIN.**— Ez dago ziurtatuta. Eta badira horren kontrako adibide asko.

**EGUNKARIA.**— Badakizue onenak Tolosan egiten direla, eta enpresa ixtear izan zela?

**GARISOAIN.**— Bai, ezagunak dira hangoak, baina ez dakit ixtear dagoen ala ez. Nik uste dut merkatua badagoela, txapela bi urtero edo aldatu beharreko gauza delako, baina ez dut inoiz pentsatu txapelaren lan-tegi bat paratzea.



JOXE LACALLE

tero emango diegu, halaber, sari bat, txapelaren defentsan nabarmendu direnei.

**EGUNKARIA.**— Ekitaldia iragarri duzue ez bakarrik bazkideendako, denendako baizik. Zenbat bazkide zarete gaur egun?

**GARISOAIN.**— 29 gara. Gutxi ematen du, kontuan harturik zenbat jende den txapelzale, baina ez dago gaizki, elkarteak, berez, buru gainean paratzen den oihalezko puxka bat defenditzeko delako. Horretarako

«Txapelak hotz eta berotik babesten du, estetikoki oso ongi gelditzen da, eta izakera isladatzen du».

koa. Horrekin ez da arazorik sartu behar.

**EGUNKARIA.**— Egia da elkarteak sortu zenetik gero eta txapela gehiago ikusten direla kalean?

**GARISOAIN.**— Hala balitz! Ez dakit, ez daukat datu zehatzik, baina hori da lortu nahi duguna. Gure helburuetako bat da txapelaren erabilera bultzatzea, 'herriko' zerbait bezala ez hartzeko, hau da, korbata edo atxurrarekin, berdin-berdin eramanez ahal izateko. Ho-

## Javier Garisoain

### TXAPELZALEEN ELKARTEKOA



### SOSLAIA

## Txapelzale berria

Txapela «gustu handiz» janzten duela dio, nahiz eta elkarteak sortu baino lehen oihitura handirik ez izan. «Soilik Sanferminetan, Xabierraldian edo mendira joateko erabiltzen nuen». Hala ere, orain ez du bortxaz janzten eta etxetik ateratzerakoan, txapela eramanez, zerbait faltan duela konturatzen da. Folklore kutsurik ez dagoela azpimarratu du, eta Nafarroan inon baino hobeto janzten dela txapela, «beste tokietan txikiagoa eta gaizki jantzita daramate eta». Halaber, oihalezko puxka honen «norberaren izakera» nabarmentzen duela dio, «zerorrek lantzen baituzu bere itxura eta forma».

## NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

